

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten **baliabide fisikoak** bere eguneroko jarduerak eta eragiketa osoa gauzatzeko mantendu behar dituen ondasun fisikoak dira, hala nola eraikinak, landareak eta makinak, besteak beste. Enpresa baten baliabide fisikoak administratzeko, mantentze-lanak eta berritzeak planifikatu behar dira, eta aseguruaren antolaketa eta ondare-segurtasuna barne hartzen ditu, ondasun horiek babestu eta zaintzeko. Gure enpresan hauek izango dira:

BALIABIDE FISIKOAK	AZALPENA
Eraikinak eta instalazioak	Zerbitzuak bakoitzaren etxean eskainiko ditugu, baina ofizina bat izango dugu zerbitzua kontratatzeko. Bilbon kokatuta dago, Atxurin. 210m ² -ko lokala da, Santos Juanes kalean kokatuta. Lokalaren prezioa 600€ hilabeterokoa da. (https://www.idealista.com/inmueble/38994971/)
Aseguruak	Hausturak, galerak.
Hainbat makina (Bulegoko altzariak eta materialak)	Idazmahaiak, altzariak, inprimagailuak, telefonoak. (prezioak kostuen egituran zehaztu ditugu).
Informatikako materialak	Hardwarea, ordenagailuak, zerbitzariak, bideorako pantailak, etab. (prezioak kostuen egituran zehaztu ditugu).
Larrialdietarako ekipamendua.	Suteen aurkako sistemak, besteak beste.
Segurtasuneko ekipamendua.	Monitorizazio-sistemak, kamerak.

Giza Baliabideak erakunde bateko langile edo kolaboratzaile guztiek egiten duten lana da. Baina ohikoena da horrela deitzea erakundeko laguntzaileak hautatu, kontratatu, prestatu, enplegatu eta atxikitzeaz arduratzen den eginkizun edo kudeaketari.

GIZA BALIABIDEAK	AZALPENA
Erreklutamendua eta hautaketa	Gure kasuan lan egiteko prest dauden immigranteak bilatzea eta erakartzea, enpresa martxan jartzeko.
Indukzioa	Enpresan lanean hasten diren pertsonak ongi etorriak sentitu daitezen, lehenengo egunetan laguntzak izango dute beste langileengan. Gainera, ikaskuntzak izango dituzte hizkuntza egokitzeko eta ikasteko.
Gaikuntza	Erakundeko kide diren pertsonen prestakuntza gehiagarria eska ditzakete bere eginkizunak hobeto betetzeko
Motibazioa eta lan giroa	Lan giro on batek gatazkak murrizten ditu

	eta gogoz egingo dugu lan. Horregatik, bezeroentzat deskontuak eskainiko ditugu, eta noizean behin ekintzak egingo ditugu langile guztiekin (bazkariak, formazioa jasotzeko leku batera joan guztiok batera giro ona sortzeko...).
--	--

Finantza baliabideei dagokionez, diru sarreretan esan dugun bezala 8.000€ko inbertsioa egin dugu (bakoitzak 2.000€ jarriko ditu). Lau pertsonen artean eramaten dugu enpresa eta gure inbertsio aurreikuspena 11.844€koa da. Hala ere, koltxoi ekonomiko bat izateko 13.000€ behar izatea aurreikusi dugu, eta horregatik, 5.000€ko mailegu bat eskatuko diogu Sabadell Bankuari. Horrez gain, bezeroen esku Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako diru-laguntzak daudenez, bezeroek ez dute diru gehiegi ordaindu beharko.